

Goibeko kale

1997ko uztaila, 26zk.

ELGETAKO ALDIZKARIA



UDAKO JAIEI AURRE EGITEKO DESIATZEN



Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

Barnetegikook Arrasateko euskal komunikabideak ezagutu ditugu

Elgetako Barnetegiko jendea joan da Arrasatera. Zertara? Euskal komunikabideak ezagutzera; batetik Arrasate Irratia, bestetik Arrasate Press aldizkaria eta Arrasate telebista.

Irratian elkarrizketa egin digute barnetegiar buruz eta galdetu digute zer moduz modatzen garen barnetegian eta Elgetako inguruetan, baita ordutegiari buruz ere. Ze gauzak egiten ditugun egunean zehar, zenbat garen etab. Gero bi abesti dedikatu ditugu Elgetako jendearentzako eta horrekin bukatu da elkarrizketa. Lokalak eta instalazioak erakutsi dizkigute.

Gero galderak egin dizkiegu eta esan digute lau urte daramatzatela lanean, tekniko bat, mutil bat, bi kazetari eta bi bekario direla. Udaletxeko irratia dela eta programazioari buruz bi ordu egiten dutela egunero eta kolaboratzaile asko daukatela musika saioak egiteko. Irrati hori entzun nahi baduzue 107.7an jarri behar duzue zuen diala.

Gero joan gara Arrasate telebistara eta han ezagutu dugu telebista eta Arrasate press aldizkaria. Bideo bat ikusi dugu Arrasate press aldizkariari buruz eta hor 6.000 ale egiten dituztela eta Arrasateko %97ak jasotzen du aldizkaria astero, normalean bere gaiak

herriko berriak, herriko txaskarriiloak, jendearen iritziak eta herriko gauzak dira orokorrean.

Beste aldetik telebistari buruzko teleberri bat ikusi dugu ideia bat hartzeko nola diren gauzak.

Orain dela 7 urte jaio zen telebista hau eta sortu zen telebista independente bezala. Hiru ordu emititzen dituzte astelehenetik ostiralera eta ordutegia 8etatik 11etara da (arratsaldetan).

Bere finantziatzeko modua bazkideekin eta publizitatearekin da gehienez eta Udaletxetik eta Eusko Jaularitzatik ere jasotzen dituzte dirulaguntza batzuk. Herrian oso audientzia handia daukate eta ikusten da Arrasaten eta inguruan.

Telebista honetan 15 pertsonak egiten dute lan eta egunero ematen dituzte herriko berri garrantzitsuenak eta badituzte saio ezberdin batzuk ere: kirol saio bat, kale saioa, umeentzako saioa, rock saioa eta mahai inguru bat ere bai. Eta gauza denak egiten dituzte euskaraz, noski! Zeren hori zen bere asmo garrantzitsuena haseratik.

Elgetako barnetegikoak

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derri gorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobrea *Goibekokale* ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61




Kotileoa

Kotila edo kuskuxeroena, herri txiki nahiz handietan hedaturiko espeziea da. Ez du ezagutzen ez geografia ez eta edaderik ere. Batzuen ustez, zahar edo nagusien artean zabalduagoa dagoen kirola da kotileoa, beste ezer egitekorik ez daukatelako edo. Hala ere, gazte jendea ere ez da atzera gelditzen eta zerbait diskretoagoak badira ere, ez diote ezetzik esaten honen edo haren bizitzaren berri izateari, batez ere, eta hau da harrigarriena, beraien edade ingurukoak badira.

Marmarrean ibiltzeak baditu bere abantailak. Herri telebista kate baten faltan ez dago plaza ingurura hurbiltzea bezalakorik azken nobedadeekin egunera jartzeko. Baina ez gaitzen engaina, telebistako "Gaur egun" eta "Falcon Crest"ak ahaztu eta herriko kontuez bakarrik aritu ahal izateko primerako kuskuxero bat izan behar da. Eta bestela, kotila on baten laguna izatearekin konformatu beharko gara, ze bera gabe, beti kontu edo pertsona berdinei buruz hitz egiten bukatuko dugu eta horrek, sinistuidazue, ez dauka emoziorik. Kotileoaren desabantailen artean, bere ezaugarri nagusietako bat dago, exagerazioa edo gehiegikeria, hain zuzen ere, Nobio baten faltan bi aurkituko dizkizute, eta sendagilearengana joaten ikusten bazaituzte laster asmatuko dute gaitzen bat, duela gutxi handik edo hemendik ibili zarelako. Gainera, askotan, marmarraren zentrua diren pertsonak irainduak edo barregarritzat hartuak izan daitezke, bere jatzera, izakera edo portaera ez datorrelako bat hitz egiten dabiltzan horienarekin. Informazio hutsetik sentsazionalismorako bidea oso motza da, eta hori telebistan ere antzeman dezakegu. *Corazón de verano*, Anne Igartiburu elorrixotarrak aurkeztutakoa, *Qué me dices*, *Gente*, *Extra Rosa...* eta tankerako beste hainbat programa herri txikietan (eskala txikiagoan bada ere) gertatzen denaren ispilua dira. Honegatik ez bailitz kotileoa benetan ariketa guttiz osasungarria izango litzateke.

Ibane Abasolo Olaortua



Ordu estrak, guztion kalterako?

Nola leike, guztion kalterako den zerbait guztion artean ez desegitea? Zer gertatzen da hemen?

Agintariak, ez dut uste modalitate hori desagertzeko gai direnik, ez direlako halako erabakiak hartzeko bezain pertsona libre eta konpetenteak.

Enpresariak, heldu dira langile bakoitzaren disonibilitatea oso beharrezkotzat jotzera beren proiektua defendatzeko.

Sindikatoak ere diskurtso hutsean gelditu dira; nik dakidanez inork ez dio bere afiliatuei ordu estrarik ez sartzeko agindurik eman.



Langileen portaerak ere badu zer esanik, gehinak behintzat, eskatutako beste ordu sartzeko prest daudela erakusten dute; zeren truke?... Dirua...?, Enpleguaren segurtasuna...? arduraz sozialetatik eskakeatzearen...?

Hala ere "ordu estrak denon kalterako" diskurtsoa guztion ahotan dabil.

Esango dute konpetitiboak garela baina urruti gaude konpetenteak izatetik.

Bitartean, bitzta estraordinario baten kalterako gabiltza.

Joseba Elkoro



GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Ibane Abasolo, Joseba Elkoro eta Enrike Gorrotxategi. **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS 475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

PLATER TIRAKETAN ARANTZABAL TXAPELDUN ETA EHIZA TXAKUR LEHIAKETAN ERRASTI

Juan Carlos Arantzabal, "Katxu", eta Juan Carlos Errasti izan ziren plater tiraketan eta ehiza txakur lehiaketan txapeldunak. Plater tiraketa polikiroldegi ostean egin zen, uztailaren 19an. Txakurren arteko lehia Antzuteiko baserrian, uztailaren 20an. Frogak Ozkarbi elkarteko arrantza eta ehiza sailak antolatzen ditu urtero sasoi honetan.

Juan Carlos Arantzabalek aurkari gogorrak izan zituen. Hamabi platerretik hamaika bota zituztenak lau lehiakide izan ziren. Hauen artean desenpatea jokatu zen eta garaipena Lasao kalekoak eskuratu zuen. Bigarrena Igor Irazabal izan zen eta honen atzetik Iñigo Irazabal eta Fernando Errasti sailkatu ziren.

Ehiza txakur lehiaketan Juan Carlos Errasti eta "Perla" txakurra izan ziren onenak. Bigarren postuan Iñigo Irazabalen "Dei" txakurra sailkatu zen eta hirugarren lekuan Juan Carlos



Lehia bizia egon zen polikiroldegi inguruan.

UDALEKUAK

Iaz baino neska-mutil gehiago aurtengo udalekuetan.

Eguraldiak asko lagundu ez badu ere, ekintza ugari egin dituzte: eskulanak buztinarekin, pultserak, kamisetak tintatu... Honetaz gain kirol ugari ere egin dute Ping-Ponga, frontenisa, bizikleta irteera...



Eguraldiak asko ez duenez lagundu, barruko jokoak egin dituzte neska-mutilek.

Elgetatik kanpo ere joan dira hiru irteera egin dituzte-larik. Bi Debako hondartzara eta beste Elorrioko igerilekura.

Urtero bezala, ekaineko hiru astetan zehar udaletxeak antolatutako udalekuetan 60 umek hartu dute parte. Joserra kirol teknikariaz gain lau begirale aritu dira ekintza hauek aurrera eramaten.

IRAILEAN HASIKO DA BERRIZ ANTZERKI TAILERRA

Hiru hilabetetan zehar psikomotrizitatea eta gorputz adierazpena landu dute zazpi gaztek. Zapataro bi orduetan zehar gimnasioan egiten zituzten saioak bertan behera utzi dituzte irailerarte. Gazte hauek zumarragartar bat izan dute irakasle, Juanlu, Geroa antzerki taldeko partaidea. Irailean, interesatuta dauden guztiak hartu ahal izango dute parte antzerki tailer honetan. Parte hartzeko asmotan dabilenak informazio eska dezake gazte-txean.



Eneritz eta Juanlu gorputz adierazpena lantzen.

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

IAPAM

Soldadura homologatuak

Hoditeria

Errementeritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA

Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

BI EGUNETAN JAI HANDIAK SALBADORREN

-Punta-puntako musika jaietan Alaitz eta Mainerren kontzertuarekin. Dantza lehiaketa berritasuna.-

Urtero bezala jaiak ospatu dira Salvador egunean eta bezperan. Aurten antolatzaileek inoiz baino apostu handiago egin dute jaiengatik. Aurreko urtetako presuposioa handitu egin da jai giroaren onerako izango delakoan. Presuposio hau 400.000 pezetakoa izango da. Diru hau lortzeko urte guztian zehar egindako kiniekek eta jaietan bertan sortetok eta bolatokitik ataratakoaz baliatuko dira.

Ondo pasatzeko beraz, hementxe duzue aurten Salvador jaietako antolatzaileek prestatu diguten egitaraua.

Abuztuak 2 zapatua 17:00etan, Bolo Txapelketa.

Abuztuak 5 martitzena arratsaldeko 6etan etxafleroak. Festak hasteko poteo herrikoia antolatu da, barruak berotu eta gaueko kontzertuari gogotik heltzeko.

Gaueko kontzertua modernoa eta gaur gaurkoa, Alaitz eta Maider izango dira kale kantoian 23:30ak aldera.

Abuztuak 6 eguaztena goizeko 11:00etan kontzertuan berandu arte gelditu zirenak espabilatzeko etxafleruak. Ondoren, Salvador-ko ermitan, eguerdiko 12:00etan meza nagusia. Meza entzundakoa, dantza sueltoko lehiaketa bikaina, bertan arituko dira Elgetako dantza bikoterik ospetsuena, Ihart eta Andoni. Hauekin batera kanpotik gonbidatu dituzten 7 bikote. Dantzan egin ondoren gose ederra egongo denez ez ahaztu bazkari herrikoia antolatu dela Ozkarbi Elkartearen. Txartelak salgai dituzue Patxi Tabernan eta Haizea Tabernan.

Egun berean 17:00etan neska mutikoentzako denbora pasak prestatu dituzte. Nagusiago-entzako poteo herrikoia trikitilarien laguntzaz. Gau aldean eta festean **a m a i e r a n**, 23:30etan, Lanperri eta Mili-ku Triki Bandekin dantzaldia. Oporrak hasi aurretik prestatzeko modua dira Salvador Jaiak.



Eguraldiak ez badu laguntzen trikitilariak frontoian arituko dira.

Itoizekin elkartasuna

Urtegiaren kontrako erakundeari elkartasuna adierazteko firma bilketa dago martxan. Taberna eta Gaztetxean aurkitu daitezke sinatzeko orriak.

Sinadura bilketa honekin Itoizko Urtegi lanak gelditu nahi dira (entzutegi nazionalak esan bezala 1995/09/05). Itoitzekiko Elkartasuna Taldeko 8 kideen erabateko askatasuna ere eskatzen da. Urtegi kableak moztu eta lanen 11 hilabeteko gelditzea lortzeagatik 19 urteko gartzela zigorra betarazi nahi die Nafar Gobernuak.

Oporrak

Caribera doa zuzendaria, maketazailea Australiara, Zuzentzaileak eta Kolaboratzaileak munduari buleta bat ematera eta gainontzekoak Errioxa eta Nafarroara.

Datorren urtean akaso, baina momentuz kanpina eta herriko jaiak dira gure poltxikoe-tara gehien moldatzen diren oporrak eta hor ibiliko gara. Ez pentsa, gogo handiz hartzen ditugu guk ere oporrak. Ez gara ez urruti ibiliko, inguru marian izan beharko da baina, hilabeteko deskantsua hartuko dugu eta hurrengo alea urrian jasoko duzue. Bueltan hemen izango garelakoan eta zuek ere bai, ondo pasatu, eta ondo aprobetxatu.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Tabernak

Angiozarko tabernariak ere bere oporrak merezi dituztela eta ondoko egunotan egongo dira itxita tabernak:

- Ortzi, abuztuaren 4tik 20ra.

- Beheko Taberna, abuztuaren 10etik 31ra.

Bestalde, Taberna Zaharra hilabete osoan zabalik edukiko dugu, urteko oporrak Gabon aldean hartuko baitituzte.

Liburutegia ere itxita

Angiozar Bailarako Liburutegia itxita egongo da abuztuaren zehar, irailak batean irekiko delarik berriz. Uztaileko kanpaina positibotzat jo du bertako arduradun den Mila Elortzak, eguneroko ekintzetan partehartzea etengabea izan delarik. Jolas eta animazio lanetan Eli Garitanoren laguntza izan du eta Angiozarko kaleetan ere nabari izan da goizaldeko "zalaparta".

Liburutegiarekin lotuta bertako dinamizatzaileraren plaza berriz konkurtsora atera du Bergarako Udalak, eta irailerako erabakia hartuta egon beharko luke. Aurreko lanez gain eskolaren garbiketa eta medikuaren kontsultako ardura ere pertsona honek edukiko luke.

Jubilazioa

Klarita Laspiur datorren abuztuaren hamabai jubilatzen zaigu. Azken hogeitabost urtetan Bergarako pisinetan lana egin du eta bide batez Angiozarko eskolen eta medikuaren kontsultako garbiketaren ardura izan du. ZORIONAK!!! eta osasunez disfrutatu.

ELIZAN APAINTZE LANAK

Uztail honetan Angiozarko San Migel Parrokian pintaketa lanak burutzen dihardute. Elizaren bi zati itxura berrituta geldituko dira: Sakristia eta Kapila.

Sakristiaren kasuan zeharo zaharkitua zegoen eta oraingo lanek nolabait aspaldiko dotoretasuna bueltatu diote. Kapila, bestalde, duela zortzi urte hasitako lanen jarraipenean dago, helburua aste-guneko elizkizunetarako leku ego-

ki bat edukitzea baita. Orain dena txuriz pintatu bada ere asmoa horrek pintatu eta arte aldetik ere leku erakargarria bihurtzea da.

Elizako lanekin batera Abade-etxea ere pintatuko da, instalazio elektriko berria egin ondoren. Abadearen asmoa Elgetan zein Angiozarren bizitzekoa da, herri bakoitzeko bizitza gertutik jarraitzeko. Lan guztion aurrekontua seiehun mila pesetatakoa da.

OPOR ANTZA NAGUSI

Eguraldiak asko ez badu lagundu ere, opor antza da nagusi uztail honetan. Dagoeneko oporlari batzuk joan-etorria egin dute eta berriz gure artean ditugu kolore ederrarekin. Azken urteetan gertatzen denez jendeak uztail eta abuztuaren banatuta hartzen ditu oporrak eta herriko bizitzarentzat mesedegarri bihurtzen da joera hau, izan ere eguneroko bizi-tzat-



xoa mantendu egiten baita ba-tzuren joanean eta besteen etorreran.

URA ARAZO

Azken analisiek diotenez Angiozarko ura kutsatuta ei dago eta ezin da edan. Hainbat urte pasa dira "arazo sanitario" hauek betirako ahaztuta genituela pentsatu genuenetik, baina Ur Zerbitzuaren politika "sistrinaren" ondorioz berriz uraren kalitateari buruz hitz egin beharrean aurkitu gara.

Alde batetik Urkuluko ura

edaten genuela sinistarazi egin digute eta bestaldetik lehengo iturrietatik ura saldu. Orain tuberiak dute akatsa. Bitartean "Bandoa" botailako ura edateko esanez. Ez dakiguna da zeinek ordainduko dizkigun ur-boteilok (beharbada hurrengo fakturan deskontua edukiko dugu). Badaezpadan gorde dendako tiketak!!!

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar






Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

LEHIAKETA



Ez zenutela ezagutzen? Ezagutzeko modukoa da ba! Karmele Korta da bere izena eta udaletxeko langilea da arrasatear gazte hau. Gizarte laguntzailea da Karmele eta astelehen eta eguenetan egoten da udaletxeko bulegoan. Informazio ugaria ematen du gizarte laguntzaileak. Asistente moduan ezagutzen denak beste erakunde batzuekin elkarlana egiten saiatzen da. Orientazioa ematen dio hara doan edonori, diru laguntzei buruzko informazioa, hirugarren adinekoei laguntzak bideratzen dizkie, etxez-etxeko zerbitzuak deitzen direnak... Badakizue, antzerako zerbeit behar izanez gero jo bertara beldurrik gabe.

Eta nork asmatu duen? **Oihana Saratsuak**. Birentzako afaria beraz beretzat. Zorionak!!!!!!

Oraingoan ordea pertsonak asmatzea alde batera laga eta baserrien atala asko irakurtzen dela esan digutenez ba horixe eskatuko dizuegu. Zein baserri da gure maketatzaileak desitxuratu duena?



Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

KOMIKIA



Zegaittik falta dira arraiñak Asentzion?

Aspaldixan Asentziora juaten dan jentiaik komentau dosku gero ta arraiñ gutxiau dagola potzuan. Hori dala ta , pentsau dogu jentiaik jakingo dittuala arraiñ faltian arrazoiak edo nundik norakuak.



Bihargiña (50 urte)

Potzua garbittu zan azkenengo aldixan kendu egin ziran ta ez ziran eruan gehixau, ta aspaldixan jente asko ibiltzen da arraiñak harrapatzen, ta horregaittik ez dotse emoten denborarik hazteko. Honi arazuoni soluziñua topau bihar jako, semiekin peskara juaten gazenian arraiñak egoteko.



Ikaslia (12 urte)

Arraiñak falta dira jentiaik eruan egitten dittualako pezeran ipintzeko. Ni batzutan juaten naiz Asentziora peskan egittera, baiña arraiñak harrapautakuan bueltan botatzen dittut potzura. Ura zikiña egotiaik be ekarri dau arrainen eskasia. Ondo egongo litzake kartel bat jartzia arazuan barri emoteko.




Ikaslia (22 urte)

Potzua zikiña dago-lako. Arazia konpontzeko erremedio bakarra potzua garbitzia da. Potzu inguru baillatzia be ondo egon leike jentiaik zikinkerixarik ez botatzeko. Sekula ez naiz ibili han peskan ta ez dot uste sekula ibiliko naizenik.




Koziñeria (53urte)

Jentiaik gaizki zaintzen dabelako, arraiñak harrapau ta ez bueltau. Gaztetan askotan juaten giñan, orduan potzua gorri-gorri egoten zan. Arazo hau konpontzeko onena da jentiaik zikiñak ez botatzia.



Bihargiña (62 urte)

Arraiñak ez dira falta jentiaik harrapau egitten dittualako, harrapauta be arrautza asko geratzen diralako bertan. Egin leikena da, berriz arraiñak bota ta zer pasatzen dan ikusi. Gainera potzua garbitzia be ez zan gaizki egongo. Mutikotan askotan juaten nitzan, baina oiñ begiratziakin nahikua dogu.



Jubilatua (67 urte)

Ez dakitt zein izan leiken arazo honen zergaittixa, ni neu behintzat ez naiz ibiltzen ta... Neretzako ez dago zertan ezer egin, dagon moduan laga biharko litzake. Nik ez dakat ohitturaik peskan egitteko, neri arraiña platerian gustatzen jata.

tel:768151

gustora
sentituko
zara.



Jesús Marí Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.

Mo: 970 773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

♈ Aries: Goizetan kristonak egin bihar dittuk/dittun jaikitze.

♉ Taurus: Azken aldixan jaten habillen janarixak, kaltia ekarriko dua/dona.

♊ Geminis: Dana pikutara bidaltzeko gogo handiak etorriko jatazak.

♋ Cancer: Lanian kontuz ibili, istripu arriskua daukak/daukan ta.

♌ Leo: Amodioan gora-bera batzuk eukiko dittuk/dittun.

♍ Virgo: Burua makurtuko dok/don, baiña azkenian heuk eukiko dok/don tentien.

♎ Libra: Buruan bueltaka dabizun arazuei, soluziñua topauko dotzek/dotzen.

♏ Escorpio: Iñori kasu egiñ barik, heuri komeni jatana egingo dok/don.

♐ Sagitarius: Eure tontousaiñak aguantau eziña bihurtuko hau.

♑ Capricornius: Itsaso aldeko oporrall ditxo bat ondo etorriko jata/jatan.

♒ Acuaris: Eguzkittarako kremia nok emon laster topauko dok/don.

♓ Piscis: Onduen etxian egongo haiz, iñora juañ barik. Animo turista.

Begoña Gorospe Bihargiña(51 urte)

- Zenbat urte pelukerixan? 1970ian hasi nitzan baiña Elgetan 1980xan.
- Ze moduz pasau dozuz aur-tengo jaixak? Ez dot asko disfrutau baiña zeoze urten dot, soziedaldera ta...Sekula baiña dantza gutxiau egin dot.
- Ze bota dozu faltan jaixetan? Gazterixia plazan, gaztiak denbora gehixau egitten dabe tabernan plazan baiña.
- Lan egittiaz gain ze egitten dozu? Danetik: etxeke lanak, ortuan...
- Kirolik gustokuena? Txirringularitza.
- Korte modernuak ala klasi-kuak nahixau? Segun, edadia ta bakotxan personalidadia.
- Etxekuak laguntzen dotsue pelukerixan? Alabiak iñoiz burua garbitzen.
- Kamioia ala kotxia? Kotxia.
- Bizitziari ze eskatzen dotza-zu? Pakia.
- Ulia mozteko makinilia ala artatixak nahixau? Artatixak nahixau.
- Gizonak egin dotzun erre-galoik erromantikuena? Lora bat, baiña aspaldian ez dosta egiñ besteik.
- Seme alabek emoten dotsue buruko miñik? Nota eska-sak datoze-nian ta juergara juan-dakuan dagon

- arduria.
- Ze aldizkari eukitzen dozu pelukerixan? Danetik pixkat baiña normalian kotilleokuak bakarrik ikusten dittue: *Semana, Hola...*
- Ze ekartzen dotsue burura honek berbok: krestia, pakia, matxismua? Atrebidua, ondo eruata, alkarrekin ondo ez eruatan gerokua.
- Ze bazkaldu dozu gaur? Paellia.
- Ze kolorekin ez ziñuke tin-tauko ulia? Baltzez, beti rubixia izan naiz ta.
- Pelukerixan egin dozun abe-rixarik haundixena? Ez naiz akordatzen.
- Ze kolorekin identifikatzen zara? Gorrixakin ta berdiakin.
- Neskak alardian bai ala ez? Ez, gerrara gizonak juañ ziran ta heuren ospakizuna



- da. - Eta soziuak gizonak dian elkartietan? Andria etxian geratu biharrian holako leku batera bera-kin juatia ez jata gaizki pentsa-tzen.
- 100 milioi tokatu ezke-ro ze egingo ziñuke? Biaje on bat egin ta bardin jarrai-ttu.

BILTEGI DENDA

Zugandik gertu behar dugun beste

Salbador 24 Tel: 768206

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari denda

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

TABERNA

EL PASO DE ROKIA

JATEA


tel: 768273

EGURALDI HOTZA ETA GIRO BEROA JAIETAN

**-Agian ez zara agertuko argazki hauetan baina, kontu izan! asko ezin dira argitaratu.
Konpromezu eta ustekabe asko sortuko lirateke argazki horiekin-**

Joandakoak joanda, baina ezin muzin egin errepasotxoia egiteari. Datorren urtekoak egunetik egunera geroz eta hurbilago daude (konformatu behar). Dena den hementxe argazki sorta ederra.

Jaietan zehar hor ikusiko zenuten gure kamera batera eta bestera, eta ohartu ez zaretenok Kontuz!!!!!! Gure kamarak dena ikusi eta dena jasotzen du, den dena argazkietan jasota eta batzuk erakustezinak dira. Zer gertatuko litzateke kaleratuko bagenitu? Ezin gara arriskatu eta egunen baten plazaratzeko asmoa badugu ere, oraindik ez zaudete prest ikusteko.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284






Baina hauek bai ikusteko modukoak. Ze ondo pasa genuen eguen arratsaldean umeen parkean. Nagusiak haurrak adina. Guztientzako izan zen aukera paregabea. Horretan ahalegindu ziren Udaletxeakoak eta Ozkarbi elkarteak. Frontoian eta plazan, aurpegi eta ile apainduak, eta haserre bat edo beste txandaren zain.



Playback-a, mozerro festa, musika eta pregoilariak bertsotan. Eguraldia ez da lagun izan ekitaldietan baina giroa beroa. Etxean bat baino gehiago hiru egunetan desagerturik egon bazen ere, jaien bukeran ferixan agertu ziren. Inoiz izan dugun ferixarik handiena eta jendetsuena.



IRAMA
 Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
 mensatel: 900282828
 abonatua: 247262
 tel: 789057-768025

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

E HARATEGIA

AST

San Roke 6
 tel: 768168.

AEKren BARNETEGIA ELGETAN

Jakingo duzuenez, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak hogeita urte daramatza euskararen berreskurapen lanetan (euskalduntze eta alfabetatzea). Ardatz nagusia, gure hizkuntzaren erabilpena da eta honetarako ezinbestekoa da euskaldun guztion laguntza; denok lagundu behar dugu. Gure leloak argi eta garbi adierazten du: Euskal Herria irakasle. Seiehun mila irakasle 2.000.000 ikaslerentzat.

Bere lanean beste urrats bat emanez, aurten barnetegi berri bat ireki du AEKk Elgeta herrian, eta oso esperientzia ona eta emankorra izan dela esan beharra daukagu. Herriaren laguntza paregabea izan da, gure ikasleak euskaraz bizitzeko eta gure herriaren kultura ezagutarazteko. Elgetak, bere laguntza eskaini digu bertako ohiturak eta bazter guztiak ezagutzeko. Herritarrekin izan ditugun harremanak, arratsaldeko saioetan kasu, ikasita-

koa praktikan jarri eta bertako ohiturak eta abar ezagutzeko oso baliogarririk izan dira. Herriko hainbat haur, gazte eta kultur taldek ere haien laguntza baldintzarik gabea eskaini digute, eta guk pozozki onartu eta eskertu ere bai.

Goizean lau klase ordu izaten genituen eta arratsaldean bi ordu eta ordubeteko tailerra. Tailerretan eskulanean aritzen ginen, haurrez inguratuta. Egun batzuetan irteerak ere egin ditugu, inguruko baserrietara: Larrabil eta San Juan, Uberako errotara, Intxorta mendira, Asentsio, Oskarbi elkartera, **Goibekokale**



Antoniok gustora erakutsi zizkien errotako bazterrak



Euskaraz ikastea bezain zaila omen da txalaparta jotzea.

aldizkarira... Honez gain txalaparta ikastaroa, futbol partidua eta abar luze bat egin dugu bi aste hauetan... nahiz eta eguraldiak ez gehiegi lagundu. Dena den, gauza asko egiteko gogoarekin geratu

gara; hurrengo urtean agian izango dugu aukera.


Bukatzeke, esker zerrenda luze bat egin nahi eta behar dugu bihotz-bihotzez: Elgetako Udala eta Panaderokuako jendea, bereziki Kontxi (sukaldari aparta), Iñaki eta Nagore (zerbitzari bikainak), Udaltxeko J.R., Marian eta Ana, Oskarbi Elkartereko Jexuxa eta Juanita, Larrabil baserriko Garbiñe, San Juan baserriko Antonio, Uberako errotako Antonio, **Goibekokale** aldizkariko Iban eta Bittor, Gazte txeko jendea, Alain, Aitzol eta kuadrila osoa eta herriko haurrak (Amaia, Nagore, Markel...).

Mila esker egin diguzuen harrerarengatik!!

Elegetako Barnetegia estreinatu dugun irakasle eta ikasleok.

M^A Karmen Lenzeria
Lentzeria eta kosmetika gaiak
Salbador zeharbidea.
Tel: 789040


KONTXI ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009


Kartetan jokatzeko giro egokia
Tel: 768093
P a t x i Taberna

KRABARROKAREKIN EGINDAKO PASTELA
Sukaldariak: Arantxa Aretxaga eta Ana Royuela.
Ostatu Jatetxea



NOLA PRESTATU:

Alde batetik, kazuela batetan arraina barazki eta gatzarekin egosi 10 minututan. Ondoren, hozten utzi eta barazki guztiak txikitu (zerbaiti kolorea edo itxura eskasten bazaio kendu).

Bestalde, arraultzak irabiatu gatza eta pipermin zuriarekin; azken hau gehitzea norberaren gustuaren araberakoa izango da. Tomatea, esnegaina eta arraina zatitan bota eta ondo-ondo nahastu.

Ontzi luxeska gurinarekin eta ogi-birrinduarekin gantzututa prest laga. Gero, egindako nahasketa ontzira bota eta bainumarian labean sartu. Labea 200 gradutan egon behar da gutxi gora-behera. Ordu eta laurdenetik ordu eta erdira bitartean labean eduki.


Mamituta dagoela antzemateko, orratz luze bat sartu; behin bere puntuan dagoenean labetik atera. Hoztutakoan ontzitik atera.

Maionesa edo saltsa arrosarekin lagunduta zerbitzatu daiteke.


***Saltsa Arrosa:** maionesa arinari, "Jerez" ozpina gehitu, ketchupa kolorea emateko, laranja ura, koñaka eta azkenik limoi ura.

OSAGIAK: (8 pertsonandako)

- 500gr. Krabarroka
- 1/4 l. tomatea
- 1/4 l. esnegain likidoa
- 8 arraultza
- gatza
- pipermin zuria
- gurina
- ogi birrindua
- barazkiak: porruak, azenarioa, perrexila, kipula...



GOMENDIOA - Labetik ateratakoan komenigarria da hozten uztea, horrela ontzitik oso-osoan ateratzen baita.
 - Era askotako jakiekin osatu daiteke pastela: onddoekin, mota desberdinetako arraina nahastuz, zainzuriak ganbekin (hau tomate gabe)...



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
 Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK



Gudarien Bide
 Tel: 76 80 23
 ELGETA Eguneko menua 800 pzta.
 - Karta.

GALARTZA IV.a ETA ETXANIZ 4 T'ERDI BARRUKO TXAPELDUN BERRIAK

Baraibartarrak eta azkoitiarrak merezimendu osoz lortu zuten garaipena

Enrike Galartza nagusietan eta Iban Etxaniz gazteetan izan ziren txapelkunak 4 t'erdiko barruko txapelketan. Lehenak Eñaut Berasaluze, Berasaluze VII. hartu zuen mendean eta bigarrenak Urberuaga aulestiarra.

Nagusien finalean, Berasaluze VII.a zen faboritua eta partidu hasera ikusi ondoren pronostikoak beteko zirela zirudien. Bizkaitarra 5-3 aurreratu zen bere sake bikaina aprobetxatuz. Seigarren kartoian berdindu zuten lehenengoz. Momentu horretan lau tanto jarraian egin zituen Galartzak 10 eta 6 aurreratuz. Batak eta besteak erakutsitako jokoa ikusiz bazirudien baraibartarrak partidua erraz bereganatuko zuela. Galartzaren huts baten ondorioz Eñautek sakea berreskuratu zuen hamarna berdintzea lortuz. Partiduko azken

berdinketa hamaikagarren kartoian izan zen. Hortik aurrera Galartza IV.ak txapelketa guztian zehar erakutsitako joko serioa eginaz markagailuan aurrea hartu zuen eta Berasaluze bikain defendatu bazen ere ezin izan zion markagailuari buelta eman. Azken emaitza 22 eta 16koa izan zen.

Etxaniz erraz

Gazteetan Iban Etxanizek ez zuen arazo handirik izan Urberuaga gaintzeko. Etxanizek ez zuen aurreko urteko porrota errepikatatu nahi eta hasieratik bere nagusitasuna argi utzi zuen. Urberuaga aulestiarrek etorkizun handiko pilotaria dela erakutsi arren gaur egun maila horretan azkoitiarrari aurre egingo dion pilotaririk ez dagoela argi geratu zen. Azken emaitza 18 eta 6koa izan zen.

Ezin ahaztu finaleko giroa. Apartekoa. 800 pertsonatik gora bildu ziren frontoian. Ez zen jende gehiago kabitzen. Txapelketa horrek duen maila eta garrantziaren seinale.



Bi pilotariek maila bikaina erakutsi dute txapelketa osoan.



**ENRIKE GALARTZA
(4 T'ERDI BARRUKO
TXAPELDUNA)**

- Zein da Enrike Galartza? 21 urteko mutila, Baraibarkoa. Besterik ez.
- Ladisen anaia izateak izan al du eraginik zugan? Ladisek pisu handia dauka baina frontoira irtetzen dena ni naiz ez bera.
- Nola ospatu duzu garaipena? Iruñeara joanda lagunekin, San Ferminetara.
- Zer iruditu zaizu txapelketa? Elgetan irabaztea oso zaila. Partidu bat galduz gero txapelketatik kanpo geratzen zara. Txapelketa hau oso gogorra da.
- Zer sentitzen da hainbeste jenderen aurrean txapela jartzen dizutenean? Ilusio handia. Pelotari guztiek hau lortu nahi dute. Ilusio ikaragarria egiten du.
- Nori eskaintzen diozu Txapela? Lagun guztiei eta nire familiari.
- Profesionaletara igotzeko esperantzarik ba al duzu? Horixe! Denon asmoa da profesionaletara heltzea. Zaila da baina nik ahalegin guztiak egingo ditut.

LENIZ

AUTO ESKOLA


Arana, 13 Tel: 714186
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604
ARRASATE

F . O . R

Kalitate kontrola
Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38



salvador
19
behea

ACR TALDEKO MACHON EUSKADIKO MENDI KRITERIUMAREN IRABAZLE

Kaiku taldeko Castresanarekin batera iritsi zen helmugara

Datorren urtean "Seguros Vitalicio" talde profesional berrian ariko den Ernesto Machonek irabazi zuen Euskadiko XIII. Mendi Kriteriuma. Badajozen jaiotako txirrindulari gaztea Bizkaiko Biran garai-pena lortzetik zetorren eta bere momentu ona aprobetxatu zuen.

Lasterketa egunetan emandako gertakarien ondorioz, antolatzailerak ibilbidea aldatzera behar-

tuta egon ziren Ermuatik pasatzea debekatu baitzieten. Aldaketa horrek ez zuen garrantzi handirik izan, lasterketak urtero izaten duen gogortasuna izan baitzuen eta kilometro kopurua antzerakoa izan baitzen.

Karrerako animatzaile nagusia Olarra taldeko Haimar Zubeldia izan zen. 40" ko aldea izatea lortu zuen txirrindulari

honek baina atzeko taldean Kaikuk egindako lanari esker Elgetarako azken igorera harrapatu zuen. Machonek alde egin zuen azken igoera honetan Angel Castresana (Kaiku) lagun zuela eta biak bakarrik heldu ziren helmugara. Esprintean Machon izan zen bizkorrena.

Lasterketan parte hartu zuen gure ordezkari bakarrak,

Oskar Askasibarrek, ezin izan zuen lasterketa bukatu. Ez zen Oskar izan erretiratu zen bakarra. Partehartzaile guztietatik 34k lortu zuten helmugara heltzea.

Egoitzen omenez

Antolatzaileak ez ziren ahaztu duela hilabete batzuk utzi gintuen Egoitz Elortzaz.

Lasterketa bere omenez egiteaz gain, bere lehengusuei lore sorta eta oroigarria eman zieten. Egoitzek gure artean egon ez zen arren herritar guztien txalo zaparrada jaso ahal izan zuen. Detaile polita oso.

Sailkapen nagusia

Irabazlea: E. Machon (ACR)

Mendiko saria: H. Zubeldia (Orbea Olarra)

Taldeka: Kaiku.



Machonen poza helmugara heltzean.

**Iragarri
zaitez.**

Tel: 78.90.85
Faxa: 789043


ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETATA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Tel: 76 81 67

PARTEITTI

Ermita: San Bizente

Jaia: San Bizente jaia urtarrilaren 22an.

Hurbiltasunaren arabera aurreko edo hurrengo domekan ospatzen da. Goiza hartzen duen jaia da: Mezarekin hasi, luntxarekin jarraitu eta erromeriarekin bukatu bazkalordu aurretik.

Bitxikeria: Azken urtetan fama hartu du jai honek bertan egiten den urteko KATAIDE txakolinaren aurkezpenagatik doan probatzeko aukera eta nahi izanez gero enkargatzeko oere bai (oso ona).

Baserriak:

- Altzarrika (Altzerreka)
- Altzuain Gainekua (Altzuaran)
- AltzuainAzpikua(Altzuaran)
- Orbekotxo (Orbeko etxetxo)

- Zabarte (bi bizitza)
- Zabartekotxo (Zabarteko etxetxo)
- Gezalena (Hirubizitza)
- Orbe (Arbulu) (Hutsik)
- Orbegarai

- Orbe (hormak bakarrik)
- Koroba
- Arrei (Arregi)
- Arreikotxo (Arregiko etxetxo)
- Arreigain (Hutsik)

Orbe

Orube hitzaren laburdura da Orbe. Zelai barrena edo lur sail baten barrena adierazi nahi du. Etxe honen izenetik daude beste lau etxeren izenak eratorrita: Orbe Garai, Orbekotxo eta Koroba (Goiorbea).

Etxe hau zeharo hondatuta dago, ia teilaturik barik eta etxaurrea sasiak zeharo estalita. 1817an berreraiki zuen D. Jose Maria de Orbe, Marqués de Valdespinak. Etxe hau, Altzuaran bezala, "Cabo de Armeria" eta "Casa Solar Infanzona" da.

Hutsik dago azken hogei urtetan, bere gainbehera bizkorra izan delarik.

Berez, etxe hau zaharrentariko da Angiozarren. Bertako semeek Arrasate erretzen parte hartu zuten eta Elgetako hiribildua sortu zeneko aktetan ere azaltzen dira.

XVII. mendean Orbetarrak Ermuan bizi ziren eta han jaio zen, 1672an, jatorriz angiozartarra zen Andres de Orbe y Larreategui. Bartzelonako obispa izan zen 1720an, Valentziako Arzobispa 1725ean, Castillako Kon-



Orbe etxea.

tseiluko Presidente 1727an, Inkisidore Orokorra 1733an eta Aita Santuaren Ordezkariorde 1735an. Felipe V.a erregeak bere ilobarengan noblezia titulu bat eman zion, horrela Andres de Orbe y Zarauz lehen Marques de Valdespina bihurtuz.

Gaur egun Orbetarrak Astigarragan duten palazioan bizi dira (Markesa behinik behin). Duela hamar urte saldu zuten Ermuko palazioa bertan Udaletxea

kokatzeko (etxe benetan bikaina), eta joan zen urtean, donazioz, eman zioten berea zuten Astigarragako Eliza Nagusia Donostiako obispaduari (palaziotik zuzenan dauka sarrera goiko balkoi batera, markesak meza entzun zezan). Orbetarren armarrria etxe guzti hauean (Angiozarren ere bai) aurkituko duzue (zuhaitzaren alboan bi otso).

Arregi-Torre

Dударik gabe hauxe da Parteittiko etxerik bikainena eta zatirik zaharrenak gordetzen dituen. Kanpoaldetik jauregi edo palazio itxura badauka ere gaur egun, bere erdigunean oso-osorik dauka

Orbe baserria da zaharrentariko Angiozarren. Bertako semeek Arrasateko erreketan parte hartu zuten

oraindik bere jatorrizko dorrea.

Garai baten zein itxura zeukan asmatzeko Araba aldeko Mendozako gaztelua har dezakegu eredu: erdi-erdian dorrea eta inguruan harresiak defentsarako. Arregi - Torre Elgetatik Bergararako bide zaharraren alboan dago eta komunikabide honen defentsarako eraikia izan zela dirudi. Bergarara gerturatuta ere aurki ditzakegu beste hainbat eredu bide berdinen alboan: Lamao-Torre, Supide, Egio edo Gabirixako dorretxeak. Ertaroan garrantzi estrategiko handia izan behar zuen ardatz honek, alde



Arregi-Torre.

batetik jauntxoan indarra eta bestalde sortu berriak ziren hiri-bilduen eragina jokoan baitzegoen (gogora dezagun orduan Elgeta Deba ibairaino heltzen zela).

Arregi izena Harri eta -egi hitzen elkartzetik dator eta kokatuta dagoen lekuaren deskribapena egiten du, argi ta garbi ikus daiteke bertara joanez gero nola inguruan

arbela azaleratzen den. Harrizko eremu aldapa antzekoa adierazi nahi du beraz.

Esan dugu erdigunean dorrea duela, eta goitik beheraino hutsik badago ere (dorre hauek zurezkoak izaten zituzten barrualdeak) hormetan nabari da oraindik bere sendotasuna: saeterak defentsarako eta puntadun arkua (harriz

itxita) garai bateko sarreraren lekuko. Kanpotik ikusten dena XVII. mendean jasotako jauregia dugu, seguruena harresien perimetroa jarraituz eraikia. Aipatzekoa da "sala" deitzen den gela, bere zurlanduzko habeekin.

Pedro Martinez de Arregia eta Domingo de Arregia Elgetako alkate izan ziren 1638an eta 1639an. Egun, Aldai-Arantzabaltarrak bizi dira etxe honetan.

Gezalena.

Gezalagarena da etxe honen izen osoa, eta abizen batetik eratorritako etxe izen bakarra Par-teittin. Bi bizitzako etxe handi hau baserri askoren etorkizuna izan daitekeenaren eredu da: baserria etxe bizitzetan bihurtu. Lau zatitan dago banatua eta dudarik ez "parteitiar berri" hauek auzoari bixitasun handia eman diotela.

Berrehun urteko etxe honetan aipatzekoa zen bere barne egituraren harriz egindako komunak, garai haretarako aurrerapen izugarria, eta ekialdetik zituen bi labasuen egiturak hormari itsatsita.



Altzuaran baserria.

Arregi Torre Elgetatik Bergararako bide zaharraren alboan dago eta komunikabide honen defentsarako eraikia izan zela dirudi.

NESKA-MUTIKUAK HIRIXETAN, HERRIXETAN ETA GAIÑERA...

Neska-mutikuak ondo baiño hobeto merezittako bakaziñuekin dagoz; eta beste guztiok inbidixatan Guk be, bakaziñuak euki badaukaguz, baina nahi baino moztzaguk. Ba, bakaziñuak diala ta ez diala, hiru mutiko ikusi dittut Bittorixan, tenisko raketak hartuta polikiroldegiko bidian. Goixetik tenisian jokatu eta auskalo zer egingo daben gero. Izan be, hirixetako gaztiak aukera asko dake gaur egun. Herri txikixetan, berriz, ez da egoten aukera asko, edo aukerak egoten dia, bai, baina beste modu batekuak izaten dira. Ta ez da bakaziñotako kontua bakarrik.

Hirixetan, urtian zihar eskolatik urten eta edozer egitteko aukeria izaten dabe, gurasuak ordaindu eta gogua izan ezker (ta askotan gogoz kontra be bai). Ikasteko aukera guztiak dake, esate baterako musika: solfeua, pianua, biboliña, bonbua, marakak... Arpa-joten ikasten dabenik be bada. Hizkuntzak be ikasi bihar, etorkizunian zeozer egittia nahi baldin

bada behintzat. Hola, ingelesa jakinda, baleike, Feroe irletako neska edo mutil-laguna ezagutzeko aukeria izango dabe, guk ez giñuan ingelesik ikasi-ta. Kiroletan be eskaintza zabala dake: rokodromuan burua apurtu, futbolian edo saskibaloian orkatilan bat bihurtu, piszinetan katarrua harrapau... Hori danoi liburutegixak, ludotekak, informatika ikastaruak etab. ahaztu barik.

Herrixetan, berriz, aukera gutxiau izaten dira; ia ez da aukerarik izaten horrek gauzok ikasteko, baiña, bai beste modu batera gozatzeko. Gu behintzat hor ibiltzen giñan alde batetik bestera, batian mendixan, bestian frontoian, hurrenguan plazan... Perretxikutan ez bazan, txertxiletan, edo bestela txabola egiñan Beti egoten zan zehozer egitteko, baita aspertzeko denboria be. Uste dot hirixetako neska-mutikuek ez dakela guk euki giñuan, edo oiñ herriko neska-mutikuek daken beste askatasunik. Hala ta be, gauzak parekatzen

doiaz eta oiño gaztiak gero eta antzerakuaguak dira. Oiñ ikasteko aukera gehixau dake herrixetan. Ta hemendik aurrera be, internet dala ta ez dala, ikasteko aukera gehixau izango da herri txikixetako umientzako. Ah! eta Feroe irletako gaztiekin berba egitteko ta... moduan izango dira.

Gaiñera, gero be eukiko dabe ikasteko denboria, nahi bada-be behintzat. Oiñdiokan asko ikasi biharko dabe; ta ikasittakua ahaztu be bai, bestela ez jakue dana buruan kabituko. Bittartian baztarrak nahasten ibiltzia dake, eta nagusixok beti be haserre egiñ, nagusixak harrapatzeko bildurrik barik ez daka emozioik eta bihurrikerixetan ibiltziak.


Enrike Gorrotxategi

HAIZEA
TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256

ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste
dimentsio batetara!
Tel: 768078

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA



GRONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.



Argazkia: Angel Basauri

Pablo Urangaren erretratua jarri zenekoa

Erretratuan ageri den moduan, egun hortan bere lagun min Iñaxio Zuloagak gaur egun iturriaren goialdean dagoen plaka edo Pablo Urangaren moldea jarri zuen.

Pablo Uranga pintore famatua izan zen eta bere lanak nonahi ikus genitzazke.

Gasteizen jaio arren elgetarra izango balitz moduan kontsideratua bere jaiotze agirian ere Gipuzkoarra zela jartzen zuen eta. Haurtzaroan familia giroa nahiko zapuztua izan zuen jaio eta berehala bere ama hil baitzen. Horren ondorioz aita "Cartujos" konbentu batean sartu zen. Berak aitonarekin bizitzera joan behar izan zuen.

Pablok 8 urte zituela hil zen aita eta amaordea izan arren familia giroa nahiko aldrebesa izan zuen. Pablo Uranga, amaordea eta bere bi neba-arrebak Elgetara etorri ziren bizitzera. Munduan zehar asko ibilitako gizona bada ere ahal zuenean Elgetara itzultzen zen. Elgetar honek hiru kuadro ditu Elgeta izenburutzat dutenak.

Urangaren abenturak hamaika dira baina zerbait gehiago jakin gura izanez gero bere oroimenez eginiko liburua irakurtzera gonbidatzen zaituztegu.

Erretratuko izenak ezkerretik eskubira:

Lehenengo hirurak kanpotarrak omen dira eta ez ditugu ezagutzen. Ondoren datozenak berriz, **Iñaxio Zuloaga**, **Jesus Olasagasti**, **Jose Antonio Arratibel** (parrokua), **Patxi Agarre**, **Federiko Markiegi** (aguazila), **Pedro Agirre** (Pagatza) eta azkena **Frantzisko Telleria** (Torrezar) dira.

Ibargarai, 11-13
BERGARA
Tel - Faxa: 767058



MODELO BERRIAK
Kalitate hobea preziorik onenean!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU

SALBADOR JAIAK

Abuztuak 6 Eguaztena

Abuztuak 2 zapatua

17:00etan bolo txapelketa

Abuztua 5 Martitzena

18:00etan etxafleroak eta
poteo herrikoia
23:30etan Alaitz eta Mainer

11:00etan etxafleroak

12:00etan meza

12:30etan dantza sueto

txapelketa

14:30etan bazkari herrikoia

Ozkarbin

17:00etan umeentzako

denbora pasak

23:30etan Lanperri eta Miliku

Triki Band

Ondo hasi eta ondo amaitu oporraldia